

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Bozkaleku baten agortze saiakera



ARITZ GALARRAGA

Data: 2020ko uztailearen 12a (igandea). Ordua: 13:00. Tokia: H. herriko bozkaleku nagusiko kanpoaldean dagoen banku bat. Eguraldia: orduak iraun dituen euri jasa baten azken tantak. Jende mugimendu etengabea atarian. Talde handirik ez. Gehienak banaka, binaka, trioren bat. Maskararekin batzuk. Boto papera eskuan zuhurrenak. Bi BMW. Hiru Audi. Autokarabana bat, demokraziaren festarekiko erabat axolagabe. Liburuzaina bizikletan, kaskorik ez. Lazo horiarekin gizon bat, modaz pasata egon arren. Gazte itxurako zahar bat. Atariko udaltzainaren guardia aldaketa. Gidari bat aparkatzeko zailtasunekin. Haurrak patinetean. Arraza definiturik gabeko zakur bat -niretzat zakur guztiak diren bezala, westyak izan ezik-. Ainhoa Perez, nigandik nahikoa urrun elkar agurtu ahal izateko. Hausnarketa ateporal bat: betaurrekorik ez banu, ezin izango nuke deskribatzen ari naizen hau guztia ikusi. Pausa.

Data: 2020ko uztailearen 12a (igandea oraindik). Ordua: 19:30. Tokia: H. herriko bozkaleku nagusiko kanpoaldean dagoen beste banku bat. Eguraldia: uztail beteko eguzkia, gogor jotzen du gauden ordurako. Jende mugimendu urria atarian. Gehienak tantaka. Maskarak, segun. Citroen, Peugeot, Renault bana. Goizeko autokarabana bera, demokraziaren festarekiko berdin axolagabe. Liburuzaina berriz bizikletan, kaskorik ez noski. Zahar itxurako gazte bat. Toallarekin emakume bat. Zakur pare bat -hauek ere ez dira westy-. Errealeko kamisetarik ez daraman haur bat. Pertsona bat -atezaina?- atariko udaltzainarekin hizketan. Ainhoa Perez, agurtzera joan natzaionean konturatu naiz ez zela bera -maskaren albo-kalteak-. Hausnarketa ateporal bat: betaurrekoak eramateak ez zaitu gauzak gaizki ikustetik libratzen. Azken orduko boto emaileak, presati. Atariko udaltzaina atariko argibideak desmuntatzen. Pertsona bat -atezaina!- atea ixten. Gazte bat liburu batekin: *Mundu hobe baten bila*, Karl Popper. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

“KOLABORAZIO ZIKLO BERRI BAT BEHAR DUGU KRISITIK ATERATZEKO”

ANDONI ORTUZAR, EUSKO ALDERDI JELTZALEKO LEHENDAKARIA

Hauteskunde gauean, azken hilabete “zailak” gogora ekarri ditu Ortuzarrek eta hurrengo hiru urteak ere zailak izango direla aurreratu du. Krisialdiari aurre egiteko, auzolanean, hiru helburu izango dituztela gaineratu du: enplegua, gizarte kohesioa eta autogobernua. Adierazi du Iñigo Urkullu dela krisialditik ateratzeko behar den gidaria. Garaipena apaltasunez kudeatuko dutela esan du; “gure nagusiek apaltasunez jokatzen erakutsi digute”. 2020/07/12

